

Bilduma, ikusgai

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren Bildumaren aurkezpen honek duela gutxi erositako lanak biltzen ditu, besteak beste, eskulturak, margolanak, marrazkiak, argazkiak eta bideoak. Hautatutako artelanek erakundearen programak definitzen dituen diskurtso-ildoetan sakontzen dute. Hainbat gai jorratzen dira, esate baterako irudiaren izaera «gogoetagai» gisa eta horrek hedatzen dituen idazketa-modu berriak, arteak egungo gizarte-eztabaidetan parte hartzeko duen gaitasuna eta komunitate-modu berriak sortzeko duen dohaina.

Era horretan, Bilduma, lehenik eta behin, museoaren programazioaren parte izan diren eta museoan bakarkako erakusketak izan dituzten artisten lanekin zabaltzen da, baita *Bilduma partekatua*ren programatik datozen lanekin ere. Gainera, museoaren Fundazioari azken urteetan egindako gordailuak eta dohaintzak ere biltzen ditu erakusketak.

2025.02.21
2025.04.27

**ARTIUM
MUSEOA**

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

1. ARETOA

2021ean museoaren erakusketa

programan parte hartu zuen ROSALIND NASHASIBI palestinar jatorriko artistaren *A Wider Kind of Love* margolana da erakusketaren abiapuntua. Gasteizen egon zen denboran, Nashashibik izaera autobiografikoko hiru margolan egin zituen erakusketarako. Haietako batean sandia baten irudikapenarekin lotzen ditu Palestinako banderaren koloreak. Artistak azaldu zuenez, fruta hori, koloreak direla eta, herri palestinarren ikur bihurtu ziren 1967ko Sei Eguneko gerraren ondoren, Israelen kontrolpean zegoen Gazan bandera palestinar bat erakustea delitua baitzen. Testuinguru horretan, sandiaren irudia Palestinako herriaren genozidioaren aurkako protesta-simbolo bihurtu da.

Nashasibiren espazio berean, MARÍA FRANCISKA DAPENA-ren (Palentzia, 1924 - Bilbo, 1995) *Despedida en la cárcel* dago, diktadura garaiko egilearen espetxeratzearekin lotutako tamaina txikiko irudi bat. Dapenaren lanak bizitza eta artea uztartzen ditu modu banaezinean, garaiko artista eta poetek frankismoaren aurkako borrokan zuten konpromiso politikoa islatuz. Dapenak *Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)* erakusketa iraunkorrean ere parte hartu du kartzelan egondako denboraren berri ematen duten koadro batzuekin.

Praktika artistikoaren eta lekukotza politikoaren arteko gurutzaketak begien bistakoak dira ERLEA MANEROS ZABALAREN (Bilbo, 1977) proposamenean, hain zuzen ere *The New York Times* izeneko akuareletan, non 2001ean AEBetako egunkarian argitaratutako argazkiak interpretatzen diren. Gerra-gatazkak erakusten dituzten irudiak dira, baina nabaria da ez dagoela biktimarik paisaian. Artistak dioen bezala, irudi horiek XIX. mendeko paisaia-margolaritza gogorarazten dute eta suntsipenaren estetizazioa iradokitzen, egungo gatazken inguruan hor zehar dabiltzan irudiei buruz gogoeta egitera gonbidatzen gaituztela.

PATRICIA DAUDERREN *Night Shift* eskulturak ere giza irudirik eza jorratzen du, argizarizko moduluen eta zeramikazko piezen bidez, sumatu baizik egiten ez den gorputz batek sortutako hutsuneak iradokitzen baitituzte. Lan honek, Dauderren hitzei jarraiki, funtsezko espazio bat aipatzen du, intimitatezkoa, minimoa eta prekariora, oinarrizko beharrak asetzera bideratua, hala nola, janaria eta atsedena, eta horrelakorik ez dutenen oroimena.

Ibilbideko lehen aretoan, gainera, Arabako Foru Aldundiaren bildumakoa eta aspaldi erositakoa den artelan bakarra dago. OSCAR DOMÍNGUEZEN (Santa Cruz Tenerifekoa, 1906 - Paris, 1957) *Arbalète [Ballesta]* margolana da, 1950ekoa. Ibilbideko lanik zaharrena da, eta Bildumaren hasierarekin lotura egiten du, XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan abiatu baitzen.

2. ARETOA

Bigarren aretoa bi filmen

inguruan egituratzen da: lehena, MOYRA DAVEY artistarena (Toronto, Kanada, 1958), *i confess* (2019); eta bigarrena, *Paraiso* (2021), MADDI BARBERENA (Lakabe, Nafarroa, 1988) eta MARINA LAMEIRORENA (Iruñea, 1986). *i confess* filmak Quebec garaikidearen errealitate soziopolitikoaz aztertzen du, James Baldwin idazlearen, Pierre Vallières iraultzailearen eta Dalie Giroux Otawako Unibertsitateko filosofia politikoaren teorikoaren irudietan oinarriturik. Irudi horien lekukotzak eta oroimenak Daveyren artxibo biografikotik datozen beste batzuen aldamenen agertzen dira, haren jardunean ohikoa den estrategia batean, hau da, eremu eta garai batzuetako eta besteetako ahotsek zeharkatutako oroimen, biografia eta politikekin kontakizun bat eraikiz.

Idazteko modu horri jarraituz, *Paraiso* filmak halako performance kolektibo bat dokumentatzen du, aldatzear dagoen espazio natural batean garatzen dena. Ekintza eraldatzen ari den lurralde batean gertatzen da, Artzibar ibarreko basoan kokatutako komunitate batean, eta, gainera, egileen biografiekin lotuta dago.

Ikuspegi subjektibotik edo intimitatetik egindako paisaiaren dokumentazioak egituratzen du KIMIA KAMVARIREN (Kolonia, Alemania, 1986) *Gáv* (2018-2024) izeneko argazki-saila ere, artistak Euskal Herrian bizi izandako esperientziarekin lotzen duena. Paisaia horretan, animalien siluetek bat egiten dute zerumugaren lerroekin, berriz ere paisaia-margolaritza aipagai duen eta ikuslea arrotzasun-espazio batera daraman egikera batean.

Paisaiaren generoa ulertzeko beste modu bat RAÚL DOMÍNGUEZEK (Barakaldo, 1984) ikatzez egindako marrazkian proposatutakoa da.

Marrakzi horrek landare-motiboen palimpsesto zehatz baten moduan funtzionatzen du. Dominguezek aztergaiarekiko hurbilketa zorrotza egiten du, eta zati horietatik abiatuta irudi berri bat sortzen da, zatikien bidez eraikia.

Xehetasunetik arreta da, oraingo honetan istripuaren ikuspuntutik, XABIER SALABERRIAREN (Donostia, 1969) *Friso* sailaren muina. Izan ere, Jorge Oteizak Aita Donostiaren omenez Agiñako estazio megalitikoan egindako monumentuaren gainazalean gertatutako zartaduren erregistroa da.

KANPOALDEA. LORATEGIA

Erakusketak museoaren lehen solairuan jarraitzen du, OSCAR TUAZONEN (Indianola, Estatu Batuak, 1975) *Oil and Water* (2023) lanarekin, artistak 2016tik *Water School* izenburupean garatutako proiektuaren parte den marmolezko iturri bat, non elementu hori —ura— funtsezkoa baita egilearen jardun artistiko eta aktibistan behin eta berriz agertzen diren ingurumen-gaietan.

Museoaren barruko plazan, *Lorategiaren* espazioan, JUNE CRESPOREN (Iruñea, 1982) *Core* (2022) eskultura-taldea dago. Obra hauetan, formen eta hutsuneen jokoek material-, ehundura- eta kolore-egitura eta -erritmo ugariak sortzen dituzte.

Erakusketa *Bilduma, ikusgai* programaren barruan kokatzen da. Programa hori museo hainbat espaziotan kokatzen diren Bildumako lan adierazgarrien sorta bat erakutsi eta txandakatzean datza, Artium Museoeko publikoek hurbiletik ezagutu ditzaten eta kontserbatutako ondare publikoaren nondik norakoan berri izan dezaten.